



Isabel Etxeberria EIZIEko lehendakaria, Juan Garzia itzultzailea eta Iñazio Mujika Iraola Erein eta Igelako editorea, atzo, Donostian. M. ANDRES / FOKU

Bildumako seigarren liburua du Garziak

● 1990ean jarri zuten abian Literatura Unibertsala bilduma EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartek eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, eta 200. zenbakira iritsiko da aurki. 194.ena da, zehazki, *Zer nahi nauk, Amore?*. Ez da Garziak bildumari egiten dion lehen ekarpena, aurretik Literatura Unibertsaleko beste bost liburu itzuli baititu: G.K. Chestertonen *Ostegun izan zen gizona* (Ibaizabal, 1997), Jorge Luis Borges *Ipuin hautatuak* (Ibaizabal, 1998), Juan Rulforen *Pedro Paramo* (Ibaizabal, 2001), William Shakespearen *Hamlet: Danimarkako printzea* (Ibaizabal, 2002) eta Marcel Schwob *Bizi alegiazkoak* (Ibaizabal, 2002).

Errealitateak emandakoak

- Manuel Rivasek *‘Zer nahi nauk, Amore?’* ipuin bilduma euskaratu du Juan Garziak.
- «Narratzaile peto» baten kontakizunak biltzen ditu liburuak.

Mikel Lizarralde

DONOSTIA— Manuel Rivasek (Coruña, 1957) 1995. urtean argitaratu zuen *Que me quieres, Amor?* ipuin bilduma, idazle galiziarrek orduko literaturaren alorrean lortuak zituen oihartzuna eta ospea sendotu zituen liburuak. Bazuen Rivasek garai hartarako bide bat eginda bai narratibaren (*Un millón de vacas*, 1989; *En salvaxe compañía*, 1994), bai poesian (*Balada nas praias do oeste*, 1985; *Mohicania*, 1986), eta kazetaritzan ere trebatuta zegoen, baina *Que me quieres, Amor?*-ekin, arrakasta handia izateaz gain, hainbat aitoritza ere eskuratu zituen, Galiziako Torrente Ballester saria eta Espainiako Narratibaren Sari Nazionala, kasurako. Orain, galizieraz argitaratu eta hiru hamarkadara, euskarara ekarri dute liburuak, Literatura Unibertsala bildumaren barruan. Juan Garzia Garmendiak itzuli du, eta *Zer nahi nauk, Amore?* da euskarazko izenburua.

Hamabost ipuin laburrek osatzen dute liburuak, eta Garziak berak atzo Donostian eginko aurkezpenaz azaldu duenez, hasieran ez du ematen bilduma «batasun batek» pentsatuta dagoenik. «Ematen du ipuin bakoitza bere aldetik idatzita dagoela. Alde horretatik gozamen hutsa da. Ipuin oso ba-

riatuak dira, alde batetik bestera mugitzen direnak». Hala ere, badira liburuari «zirkulartasuna» ematen dioten elementuak ere. Eta adibide bat eman zuen itzultzaileak: «Lehenengo ipuina [*Zer nahi nauk, Amore?*] amaiera bat da; eta azkena, berriz [*Yokoren argia*], hasiera bat. Eta gehiago esanda, azken ipuin horretan agertzen den ume koxkorak egingo duen bidea, beharbada, amaituko da lehen ipuineko amaieran».

Pare bat ipuin izan ezik, narratibazko guztiak Galizian daude girotuta —landa eremuan nahiz hirian—, eta haietako gehienak XX. mendearen amaiera aldera gertatzen dira. Bada kontakizunen batean edo bestean antzinakotasunaren aztarnarik, baina ez igarotako garaiaren mitifikazioak. «Ipuinotan ez dago iraganaren idealizaziorik edo exotizaziorik. Ipuinak Galizian girotuta daudela adierazteko marka berezirik ere ez dago». Horri lotuta, *Zer nahi nauk, Amore?* osatzen duten ipuinak «modernoak» dira, Garziaren iritziz, «zentzu guztietan» modernoak.

Narratiba egile ez ezik, poeta ere bada Rivasek, eta hori, itzultzaileak azaldu zuenez, nabari da ipuinotan. «Ikusten da poeta dela, baina asko kontrolatzen du joera hori. Irudimen metaforiko hori oso

modu ekonomikoan erabiltzen du. Ez da apaingarriekin hasten, baina giroa emateko baliatzen du poesia. Zerbait deskribatzen ari da, baina sartzen dituen ukitu poetiko horiekin giro batez jabetzen zara». Eta egileak darabilen tonu poetikoari baino gehiago, hark istorioak kontatzeko duen nahia-ri eta gaitasunari erreparatu die itzultzaileak. «Izaeraz, narratzaile petoa da Rivasek, baina poesiaren baliabideak erabiltzen ditu istorioak kontatzeko».

Ipuinen beste ezaugarri bat nabarmendu zuen itzultzaileak: amaieran, «bertsolari tipiko batek egiten duen eran», kolpea ematen du idazleak. «Zerbait espero duzun une horretan, buelta ematen dio».

Iñazio Mujika Iraola Erein eta Igelako argitaletxeetako editoreak, bestalde, nabarmendu zuen ipuinotan maitasuna, indarkeria, familia, desioa, galera eta beste gai unibertsal ugari ageri direla, baita beldurra ere. «Eta horiek hizkera poetikoaren bitartez aletzen ditu. Irudi ederrak, metafora egokiak erabiltzen ditu, umorea eta tristura konjugatzen ditu. Ipuin errealistak dira, baina fantasiako ukitu bat dute».

Garziak, halere, niabardura bat erantsi nahi izan zion horri. «Hemen ez dagoena da naturaz gaine-

ko mirari edo asmakeriari. Halako zerbait dagoela dirudienean, pertsonaiaren baten subjektibotasunetik ikusita dago. Badago zerbait bisionarioa ipuin hauetan».

Liburuaren hitzaurrean bertan azaldu du Garziak nola landu duen Rivasek errealisismoa: «Errealitate-rik jasotakoak dira ipuinotako kontuak, nahiz eta arrazoimenaren, logikaren edo *normaltasunaren* ulerbide estutik at agertu zenbaitetan, itxuraz».

Film batek ezagutarazia

Bildumako narrazioen artean bada bestek baino oihartzun handiagoa erdietsi duen bat: *Tximeleten mihia*. Hamabost orrialde eskaseko ipuina da, baina hortik abiatuta, eta bilduma bereko beste bi kontakizun ere txertatuta (*Saxo bat lainoan* eta *Carmiña*) film luze bat zuzendu zuen 1999an Jose Luis Cuerdak. Garziak berak laudatu egin zuen *Tximeleten mihia* ipuina: «Ez daukat gogoan hain laburrean [frankisten] altxamendu nazionala herri txiki batera nola iristen den hain zabal kontatzen duen ipuinik. Ikaragarria da».

Galizian girotua egonagatik ere, Rivasek ipuin hori, eta bildumako beste asko ere bai, händik kanpo girotuak egon zitezkeela uste du itzultzaileak, eta hori azaltzeko adibide praktikoa bat ere eman zuen: «Orain dela hogeit bat urte, Irungo Plazara aldizkarian parte hartzen nuen, eta han *Ai gureak balira* izeneko sail bat genuen. Hor, gustuko ipuinak hartu, eta izenak eta lekuak moldatuta ematen nituen. Eta ipuin hori bera prestatu nuen».



«Izaeraz, narratzaile petoa da Rivasek, baina poesiaren baliabideak erabiltzen ditu istorioak kontatzeko»

JUAN GARZIA GARMENDIA
Itzultzailea